

EGUNKARIA



EGUNKARIA

tan. Gaur egun, ordea, esku publikoetara igaro da jauregia, Portugalgo gobernua baita etxearen eta lorategi ederren jabea. Krabelinetako iraultzak zerbaitetarako balio izan zuen.

### Etxe nagusia eta inguruko lorategiak, agertoki

Hain zuzen ere, etxe historikoan, inguruko lorategi zabal-zabaletan eta museoko auditoriumean aurkeztu dira Mugatxoan-en harira izandako emanaldiak. Uztailaren 7an Gary Stevensek *The House* eta *Five-minute Objects* piezak aurkeztu zituen, bakarlari gisa. Hilaren 12an eta 14an beste *performance* bat aurkeztu zuen (*Here and there*) Erresuma Batuko artistak aurtengo 16 partaideen zuzendari gisa, etxean jada geratzen ez diren altzariak eta objektuak gogoratuz eta dantzari gazteak lorategiko zuhaitz eta landareen artean txertatuz.



EGUNKARIA

**'HERE AND THERE'.** Gary Stevensen *performance*-a estreinatu da Portoko Serralves Fundazioan. Mugatxoan egitasmoaren enkargu bat izan zen eta lantegiko hamasei kidek interpretatu zuten.

**SERRALVES FUNDAZIOA**

## Jatorrizko etxearen bilakaera historikoan Portugalgo historia hurbila laburbil daiteke

Ostiral gauean, Cuqui Jerezek Donostiako Artelekun emandakoa errepikatu zuen (*A Space Oyssey, 2002*), eta ekitaldi zikloari amaiera emateko Jérôme Bel dantzari frantziarra arituko da gaur, izenburu bereko ikuskariarekin. Bitartean, *Publico* egunkari portugaldarrak (kultur gaiak hobekien jorratzen dituenak) hiru orri argitaratu ditu bere kultur gehigarrian Mugatxoan eta Serralvesen arteko kolaborazioa jasotzeko.





